



BANDOA

Mungiako Udaleko Alkate-Udalburuak, **martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna** dela eta, hau adierazten du:

Mungiako Udalak bat egiten du **Berdinsarearen Adierazpen Institutuzionalarekin**. Adierazpenak, oraingo honetan, bat egin nahi du *Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataformaren* 30. urteurrenarekin; 1995ean Beijingen egin zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzian adostutako akordioek genero-berdintasuna, emakume eta neska guztien ahalduntzea eta giza eskubideak gauzatzeko munduko ibilbide-orria abian jarri zuten.

Ibilitako azken 3 hamarkadetan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina bilakaera desorekatua izan da eta **oraindik munduko herrialde bakar batek ere ez du lortu emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasuna**. Hala eta guztiz ere, berdintasun-indizeek aurrerapena nabarmena izan dela erakusten dute, berdintasun-politiken araudi- eta erakunde-garapena eta mugimendu feministaren bultzada iraunkorra bateratu diren testuinguruetan.

Euskal erakundeek eta, bereziki, tokiko gobernuek, 30 urte hauetan metatutako ebidentzia dute, eta horrek agenda feminista globalean oinarritutako berdintasun-politika bermatu eta legitimatu egin du.

Tokiko eremutik arlo kritiko globaletan aurrera egiten laguntzeko, gure Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1. Sustapen-egiturak baliabide eta langile nahikoz hornitzea**, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko politikak garatzeko, Berdintasunerako Politika Publikoen Kalitate-estandarren arabera.
- 2. Tokiko arreta- eta koordinazio-protokoloak** eguneratzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta bizirauleak onbideratzeko.
- 3. Herritarren artean, indarkeria matxistari aurre egiteko programak** garatzea, gure gazteak bereziki mugiaraziz.

Horrekin batera, Udal honek bat egiten du Mungialdeko emakumeen elkarrekin eta talde feministek Udaletxe inguruan **martxoaren 8an (zapatua), 12:00etan** deitutako **manifestazio eta osteko kontzentrazioarekin**.

Eta amaitzeko, dei egiten diegu herritarrei Emakumeen Nazioarteko Egunaren aldarrikapenari era aktiboan eusteko; eta bai Udalak bai beste organizazio edo erakunde batzuek **antolatutako mobilizazio guztietan parte har dezaten**.

La Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Mungia, y con motivo del **8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres**, declara que:

El Ayuntamiento de Mungia se adhiere a la **Declaración Institucional de Berdinsarea**, que en esta ocasión pone el foco en el 30 aniversario de la *Declaración y Plataforma de Acción de Beijing*, adoptada en el seno de la IV Conferencia Mundial sobre la Mujer en 1995. Estos acuerdos pusieron en marcha la hoja de ruta mundial para lograr la igualdad de género, el empoderamiento de todas las mujeres y niñas y la realización de sus derechos humanos.

En tres décadas se han dado avances importantes, pero la evolución ha sido desigual y **todavía ningún país en el mundo ha alcanzado la igualdad de género** entre mujeres y hombres. Así y todo, los índices de igualdad muestran que el avance ha sido notable en aquellos contextos en los que el desarrollo normativo e institucional de las políticas de igualdad han confluído con el impulso sostenido del movimiento feminista.

Las instituciones vascas, y los gobiernos locales en especial, cuentan con la evidencia acumulada en estos 30 años, que avala y legitima las políticas de igualdad basadas en la agenda feminista global.

Con el fin de contribuir desde el ámbito local al avance en las áreas críticas globales, este ayuntamiento se compromete a:

- 1. Dotarse de las estructuras** para desarrollar políticas de igualdad y lucha contra la violencia machista, con los **recursos y el personal** suficiente, acorde a los Estándares de Calidad de las políticas públicas de igualdad.
2. Actualizar los **protocolos locales de atención y coordinación** para la reparación de las víctimas y supervivientes de la violencia machista contra las mujeres.
3. Desarrollar **programas de prevención de la violencia machista** entre la ciudadanía, movilizándolo especialmente a la juventud.

Asimismo, este ayuntamiento se adhiere a la **manifestación y posterior concentración**, convocada por las asociaciones de mujeres y grupos feministas de Mungialdea el **sábado 8 de marzo, a las 12:00 horas** en las inmediaciones del ayuntamiento.

Finalmente llamamos a la ciudadanía a mantener activa la reivindicación del Día Internacional de las Mujeres y **a participar en todas las actividades y movilizaciones** que se organicen con este motivo, tanto desde el ayuntamiento, como desde otras organizaciones o entidades.

Mungian, 2025eko martxoaren 5ean

ALKATEA
Alaitz Erkoreka Baraiazarra